

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## 2017an, 28 lagun hil dira Nafarroan trafiko-istripuetan, iaz baino bi gehiago, Barne Zuzendaritza Nagusiaren behin-behineko balantzearen arabera

*Haietatik 18k hiriarteko bideetan galdu zuten bizia (errepideen foru-sare horren erregistro historiko txikiena)*

Osteguna, 2017.eko abenduak 28

2017an, 28 lagunek galdu dute bizia Nafarroan gertatutako trafiko-istripuetan, iaz baino bi gehiagok, Barne Zuzendaritza Nagusiaren behin-behineko balantzearen arabera, urte hau amaitzeko lau egunen faltan.

Heriotza horietatik 18 Nafarroako Errepideen Katalogoko hiriarteko bideetan gertatu dira, eta 10, beste mota batzuetako bideetan (hirikoak, nekazaritza-bideak...).

Behin-behineko datu horien argitan, aipatzekoa da 2017an erregistratu direla biktima gutxien errepideen foru-sarean erregistroa existitzen denetik; beraz, joerak bere horretan jarraitzen du Nafarroako Gobernuaren jabetzako errepideetan.

Hona hemen balantze horren beste bi datu aipagarri: batetik, % 12,95 murriztu da zauritu larrien kopurua 2016. urtearekiko; bestetik, aldiz, garraibide gisa bizikleta gehiago erabiltzearen ondorioz, ibilgailu-mota horretan zihoazen bi lagun hil dira aurtan, zoritxarrez.

### Behin-behineko balantzearen datuen xehetasuna

2017an, behin-behinekoak, 4.869 trafiko-istripu gertatu dira; haietatik 3.265, hiriarteko bideetan, eta 1.604, hiri-bideetan eta bestelako bideetan.

Istripu guztietatik, 25 hilgarriak izan dira, non 28 lagun hil baitira.

Barne Zuzendaritza Nagusiak aurkeztu duen balantzetik, zenbait datu interesgarri ateratzen dira.

Hildakoen % 79 gizonezkoak ziren (22 biktima), eta % 21, emakumezkoak (6 biktima). Adinari dagokionez, hildakoen % 85 25 urtetik gorakoak ziren (24); horietatik % 21, 64 urtetik gorakoak (6), eta % 15, 25 urtetik beherakoak (4). Ezbehar hilgarrien artean, istripuen % 68an ibilgailuaren



Istripua izan duten ibilgailu gehienak autoak dira.

gidaria hil zen, istripuen % 7an gainerako bidaiariak hil ziren, eta istripuen % 25ean, oinezkoak.

Istripu hilgarriak izan dituzten ibilgailu-motei dagokienez, gehienak autoak izan dira, bat kamioia izan da, eta beste bat nekazaritza-ibilgailu bat izan da, arestian aipatutako bi txirringulaz gain.

Gainerakoen artean, % 39 autoak edo furgonetak izan dira, % 25 oinezkoak izan dira, eta % 21 motozikletak eta ziklomotorrak izan dira.

Datu gehigarri gisa, ezbeharren % 50 astelehenean edo larunbatean gertatu zen, eta hildako gehienak uztailean izan ziren (5 hildako).

Urtarrilean eta abuztuan, ez zen inor hil istripuz.

### **Zauritu larriak eta arinak**

Bereziki kezkatuta agertu da Barne Zuzendaritza Nagusia ez bakarrik hildakoengatik, baita zaurituengatik ere.

Arestian esan bezala, zauritu larrien kopurua murriztu egin da, baina zauritu arinena % 26,61 igo da.

Biktimak eragin dituzten istripu horietako asko gidatzean arreta galtzeagatik gertatu dira, gailu mugikorrek erabiltzeagatik, hain justu, batez ere telefonoak. Istripu gehiago gertatzen dira arrazoi horrengatik alkohola edo drogak kontsumitzeagatik edo abiadura handiegian joateagatik baino —faktore horiek ere oso ohikoak dira trafiko-istripuetan—.